

HITZ BIKOTEEN LEHIAKETA

Eibarko bi euskaltegiak (Udal Euskaltegiak eta AEK-k) hitz bikoteen lehiaketa antolatu dute Udalaren lankidetzaz: **jendearentzat gustukoena den hitz bikotea (izena+adjektiboa) hautatzeko lehiaketa** izango da. Hitz bikoteak oso desberdinak izan daitezke: “begirada zorrotz”, “irribarre gozo”, “lo gogor”, “hanka-gorri” ... edo orijinalagoak izan daitezke. Parte-hartzaile bakoitzak berari gehien gustatzen zaion berba bikotea aurkeztuko du aurkeztuko du, eta jendearen botoen bitartez jakingo dugu jenderi zein gustatu zaion gehien.

Parte hartzeko:

- Parte hartu nahi duenak **gustukoena duen berba bikotea (izena+adjektiboa) proposatu behar du**. Eibarko Euskararen Hiztegian hitz asko dituzue aukeran: www.eibarko-euskara.com
- Berbak euskaltegietara joanda aurkez daitezke edo posta elektronikoz: euskaltegia@eibar.net / eibar@aeek.org
- Ez da beharrezkoa berba zergatik aukeratu den arrazoitzea.
- Berbak aurkezteko epea **otsailaren 16an** bukatuko da.

Berba bikoterik gustukoena aukeratzeko botazioa egingo da. Botoa emateko:

- Botoa www.eibarko-euskara.com web gunean eman beharko da, **martxoaren 2ra bitartean**.
- Aurkeztutako berba bikoteen artean gustukoena iruditzen zaizuna aukeratu eta botoa eman, ez da besterik egin beharko.

Sariak:

- Saria ematerako orduan, epaimahaiaren erabakia eta jasotako boto-kopurua hartuko dira kontuan:
 - Bi sari emango dira:
1. **Irabazlearentzat:** Coliseoko emanaldi baterako bi sarrera, Armagintza Museorako bi sarrera, Kalamuako Parlamentua jokia eta Gotzon Iparragirrereren *Eibar Oasi Liberala* liburua.
 2. **Parte-hartzaileen artean zozketa bidez ateratzen denarentzat:** Kalamuako Parlamentua jokia eta Gotzon Iparragirrereren *Eibar Oasi Liberala* liburua.

EUSKARA-KULTURA BATZORDEA